



FORU DEKRETUA

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila
Zerga Araudiaren Zerbitzua
Esp. zk.: 197/2017

Aldatzea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan lan etekinen gainean egin beharreko atxikipenen ehunekoak.

Azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarenak, bere XII. Tituluko II. Kapituluak konturako ordainketez dihardu. Haiei buruz zehaztasun handiagoz hitz egiten da Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Arautegian, zeina abenduaren 1eko 40/2014 Foru Dekretu bidez onartu baitzen, VII. Tituluan.

Foru dekretu honen helburu nagusia da lan etekinen gainean egin beharreko atxikipenen ehunekoaren taula berri bat onartzea.

Xedapen honen funtsa da lanen atxikipenak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren tarifa berriari egokitzea, eta xedapen hau berau da tresnarik egokiena horretarako.

Araudi honek proportzionaltasun printzipioa betetzen du, eta xedapen horrekin bete nahi den beharrari erantzuteko ezinbestekoak diren arauak biltzen ditu. Ez dago neurririk eskubideak gutxiago murrizten dituenik edo hartzaileari betebeharrak gutxiago jartzen dizkionik.

Ekimen honek bermatu egiten du segurtasun juridikoaren printzipioa eta koherentea da ordenamendu juridikoarekin, Estatukoarekin zein Europar Batasunekoarekin.

Foru dekretu hau izapidetzean gardentasun irizpideari jarraitu zaio, zeina urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearenak, 129. artikuluan arautzen baitu.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako araugintza eraginaren txosten laburra aztertu da.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau



XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arautegia aldatzea.

Aldatu egiten dira pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren erregelamenduaren 84. artikuluan 1. eta 4. paragrafoak; erregelamendu hori abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuak onartu zuen, eta honela geratzen dira idatzita:

“1. Atxikipenen ehunekoaren taula orokorra:

Urteko etekin zenbatekoa (€)tan		ONDORENGOEN KOPURUA						
Zenbateko honetatik	Zenbateko honetara	0	1	2	3	4	5	Gehiago
0,01	11.780,00	0	0	0	0	0	0	0
11.780,01	12.250,00	1	0	0	0	0	0	0
12.250,01	12.760,00	2	0	0	0	0	0	0
12.760,01	13.310,00	3	1	0	0	0	0	0
13.310,01	13.920,00	4	2	0	0	0	0	0
13.920,01	14.580,00	5	3	0	0	0	0	0
14.580,01	15.310,00	6	4	2	0	0	0	0
15.310,01	16.150,00	7	5	3	0	0	0	0
16.150,01	17.370,00	8	6	4	0	0	0	0
17.370,01	18.790,00	9	7	5	2	0	0	0
18.790,01	20.130,00	10	8	7	3	0	0	0
20.130,01	21.650,00	11	10	8	5	1	0	0
21.650,01	23.150,00	12	11	9	6	3	0	0
23.150,01	24.820,00	13	12	10	8	4	1	0
24.820,01	26.930,00	14	13	11	9	6	2	0
26.930,01	29.470,00	15	14	13	10	8	4	0



29.470,01	32.530,00	16	15	14	12	9	6	0
32.530,01	36.680,00	17	16	15	13	11	8	0
36.680,01	39.740,00	18	17	16	15	13	10	3
39.740,01	42.810,00	19	18	17	16	14	12	5
42.810,01	46.200,00	20	19	18	17	15	13	7
46.200,01	49.750,00	21	20	20	18	17	15	9
49.750,01	53.760,00	22	21	21	19	18	16	11
53.760,01	57.180,00	23	22	22	21	19	18	12
57.180,01	60.970,00	24	23	23	22	21	19	14
60.970,01	65.310,00	25	25	24	23	22	20	16
65.310,01	70.300,00	26	26	25	24	23	22	17
70.300,01	75.600,00	27	27	26	25	24	23	19
75.600,01	80.320,00	28	28	27	26	25	24	20
80.320,01	85.650,00	29	29	28	27	27	25	22
85.650,01	91.740,00	30	30	29	29	28	27	23
91.740,01	98.770,00	31	31	30	30	29	28	25
98.770,01	106.510,00	32	32	31	31	30	29	26
106.510,01	115.360,00	33	33	32	32	31	30	28
115.360,01	125.390,00	34	34	33	33	32	32	29
125.390,01	137.330,00	35	35	34	34	33	33	31
137.330,01	150.900,00	36	36	36	35	35	34	32
150.900,01	166.790,00	37	37	37	36	36	35	33
166.790,01	186.410,00	38	38	38	37	37	36	35
186.410,01	206.710,00	39	39	39	38	38	37	36
206.710,01	Hortik gora	40	40	40	39	39	39	37



4. Langile aktibo ezinduak.

Langile aktibo ezinduei artikuluko honen 1. paragrafoan aipatutako atxikipen portzentajeen taula orokorra aplikatuko zaie. Taula orokorraren arabera atxikipen portzentaje horri eskala honetan ezarritako puntuak kenduko zaizkio, langilearen egoeraren arabera:

- a) Ehuneko 33ko edo hortik gorako eta ehuneko 65etik beherako ezintasuna duen langile ezindu aktiboa bada.
- b) Ehuneko 33ko edo hortik gorako eta ehuneko 65etik beherako ezintasuna duen langile ezindu aktiboa bada eta mugikortasun murriztuko gabezia egoeran badago. Horrelakotzat hartuko da abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuak, ezintasun maila onartu, aitortu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duenak, 2. eranskinean zehaztutako baremoaren A, B edo C ataletan jasotako egoeraren batean badago edo baremo horretako D, E, F, G edo H ataletan jasotako egoeretan 7 puntu edo gehiago baditu.
- c) Ehuneko 65eko edo hortik gorako ezintasun maila duen langile ezindu aktiboa bada.

Urteko etekinen zenbatekoa (€)tan		Ezintasun gradua	
Zenbateko honetatik	Zenbateko honetara	4) paragrafoa	4.b) paragrafoa eta 4.c paragrafoa
0,01	23.150,00	9	12
23.150,01	29.470,00	7	12
29.470,01	42.810,00	6	10
42.810,01	49.750,00	5	10
49.750,01	70.300,00	4	8
70.300,01	106.510,00	3	6
106.510,01	166.790,00	2	5
166.790,01	hortik gora	1	3



AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2018ko urtarrilaren 1az geroztik jasotako ordainsariei aplikatuko zaie.

Vitoria-Gasteiz.

Ramiro González Vicente

Diputatu nagusia

José Luis Cimiano Ruiz

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu
Saileko foru diputatua

Teresa Viguri Martínez

Ogasun zuzendaria